

AXULAR (1556-1644): GERO

Piarres Axular (Piarres Agerre Azpilikueta) Lapurdi eta Naparroa'ren bitartean dan Urdazubi'n jaio zan eta antxe dago gaur be bere jaiote-etxea.

Toki askotan ikasi eta jakituri aundia eskuratu eban eta Tarbe'n egin zan abade.

Sara'n egin eban bere artzain-lana 1600n. urtea ezkerro. 298 sendi ziran orduan saratarrak.

Ainbat urtetan berbaldiak eta oarrak idatzi ebazan ezer argitaratu barik, baiña askok ekin eta ekin egiten eutsoen eta azkenean lanak batu eta liburu eder bat osotu eta 87 urtekoa zala argitaratu eban. "Gero" ipiñi eutson izena, Jaunagana biurtzea gerorako ez dala itzi bear gogoratzeko.

Euskeraz idatzitako liburu guztien artean aitatuen da Gero.633 orrialde dira eta 60 ataletan banatuta dagoz.

Liburuaren gaia pekatariak Jainkoagana biurtzeko emon bear dauzan urratsak dira, asketika gaia.

Euskera atsegiña ta aberatsa dauka liburu onek eta liburuaren eta idazlearen inguruan idazle-talde aundi eta on bat sortu eban. Or daukaguz Sara'ko eskolea osotzen daben Etxeberri, Argaiñaratz, Harizmendi,, Materre, Haranburu, Gazteluzar...

Axular'ek ba-ditu akats batzuk, esaterako "zeren", "ezen", "zeiñek" eta olakoak, latiñetik artuak eta euskerearen izaerea nagikeriz baztertzen dabenak. Batez be bere jostakera latiñari lotua da eta edozein baserritar euskaldunek zuzenduko leuke. Akats au sarritan agertzen da orduko idazleengan.

Manuel Lekuona'k "GERO" liburu oparoa dala diño, bai gaiz eta bai eraz, bai mamiz eta bai azalez.

Eredu eta maixu dogu Axular, egia da, baiña ez dogu artu bear itsurik, akatsak alboratuta baiño.

Gaiari buruz, ez dala berak asmatua esan bear, sasoi aretako idazleak sarritan erabiltzen eben gaia da. Batzuk ba-diño Fran Luis de Granada'ren "Oración y meditación" liburuaren antz aundia daukala.

Ipuin batek diñoana da Salamanka'n ikasle zala entzun ebala Axular'ek leiza-zulo baten txerrenak irakastaldiak emoten ebazala eta ara joan zala bere jakituri aundia lortzeko eta Txerrenak beraganatu egin nai izan ei eban eta bera eskuratu ez arren bere itzala, gerizea, eskuratu ebala eta orregaitik izan zala Axular itzal gabeko idazlea bere bizitzan. Berak iges egin eutson txerrenari, baiña ez bere gerizeak.

Sara'ko eleizan gomutaki bat ipiñi eutson Luis Luziano Bonaparte'k Axular'eri eta itz oneik irakurri leikez an gaur be:

"Pedro Axular
euskaldun izkribatzailleetatik
iztun ederrenari,
nik,Luis Luziano Bonaparte
euskerazaleak
au ipiñi nion.
Ez dago atsedunik
eta odei gabe egunik
zeruetan baizik.1865.

OLAZAR'tar Martin'ek

EGALPERRA (AVESTRUZ) ETA PIZTIK

Egalperra edo abestruza da egaztirik aundiena: 2'50m'ko goierea dauka eta eun kiloko astuntasuna.

Ezin leike egaz egin, baiña zelaetan piztirik bizkorrenak baiño ariñoago egiten dau: orduko 60 km.

Egalperrak eta jirafak edo sama-luzeak zebrakaz edo zaldi nabarrakaz batera ibiltzen dira guztien begiratzailleak ba'litzakez lez.

Burua goian daukalako, etsaiak urrutira ikusten dauz, orregaitik egalperra iges doanean, an doaz zebrak be beragaz batera.

Rinizerontek tona ta erdiko pisua dauka, narru lodia ta tximurtua eta topeka be ona da. Ikusmen laburra dauka eta orregaitik errez erasoten dau gizona. Ba-dauka indarra kamioa bota edo bere bidetik aterateko be.

Kabo'ko auntza, idien antzekoa da, ez auntzen antzekoa. Ibilten bizkorra eta beronen umeak arriskuan dagozenez, bildurgarria da eta leoiak eurak be ilteko almena dauka.

Grant orkatza polita da eta Kenia'n bizi da. Leoien janari izaten da. Ille batzuk igaro leikez urik edan barik.

OLAZAR'tar Martin'ek